



IIPE 2007: GAI AK

IDENTITATEA, ELKARREKIKO MENPEKOTASUNA ETA BORTXAKERIARIK GABEKO ERALDAKETAK HEZKUNTZAREN LEHENTASUN PRAKTIKOAK BAKERAKO TRANSIZIOETAN

Nazioarteko Bakerako Institutoa (IIPE) **Baketik**-ek babestuko du aurten, **Gipuzkoan dagoen Arantzazuko Bake Zentruak**, 2007ko uztailaren 14-tik 22-ra. Topaketa hau **Baketik** eta New York-eko **Columbia Unibertsitateko Teachers College-eko Bake Hezkuntzarako Zentruak** antolatzen dute. 2007-ko IIPE-k “Identitatea, Elkarrekiko Menpekotasuna eta Bortxakeriarik gabeko Eraldaketak: Hezkuntzaren Lehentasun Praktikoak Bakerako Transizioetan” gaia landuko du. Gai egokia, 40 urtez bortxakeriaz zeharkatutako gatazka bat jasan duen eskualde batean.

2006-ko martxoan, ETA-k su-eten iraunkorra iragarri zuen. Honen inguruan, itxaropen haundiko garai bat zabaldu zen gizarte osoan. Itxaropen hau azken gertakizunek ilundu badute ere, bake iraunkor bat lortzeko jarraitu behar dugu lanean. 2007-ko IIPE bortxakeriarik gabeko eraldaketak eman daitezten sortzen zaizkigun erronka eta aukeratan zentratuko da, identitatea eta elkarrekiko menpekotasunari loturik. IIPE-k galdetuko digu zein jarrera, balio, prozesu eta praktika; zein motatako erresistentzia eta ekintza eraikigarri; zein motatako hezkuntza praktikak ahalbideratu eta mantentzen dituzte bortxakeriarik gabeko eraldaketak. Une berezi eta itxaropentsu batean gaude IIPE-an emango den ikasketarako, bereziki esanguratsua antolatzen den eskualdean eta munduko beste inguruetara egokitu daitekeena. Hurbiltzen direnek, barnetegi moduko esperientzia batean parte hartuko dute, zeinetan gogoeta eta esperientzien elkartrukaketa emango den gai hauen eta beste batzuen inguruan, Europa, Mediterraneo Erregioan eta munduko beste toki askotako bake kulturarako agendan bait daude..

Aldaketa azkarren eta elkarrekiko menpekotasunaren gaurko mundu honetan, nola eta zertan lagundu ahal du bake hezkuntzak bortxakeriarik gabeko eraldaketatan? Gai hau aztertzerakoan, arreta berezia jarriko zaio identitatea eta elkarrekiko menpekotasunari iraganeko, etorkizuneko eta historiaren abiapuntutik ere. Kontzeptu hauek ulertu eta beraien arteko loturak argitzea IIPE honen muinean egongo da. Esperientziak trukatu dira eta eredu praktikoak eskeiniko dira partaide bakoitzak bere komunitatera eraman ahal dituen estrategia eta ikuspegi berriak topa ditzan.

Identitatea

Euskal-Herrian, identitatea eta identitate anitzak gatazkaren muinean daude. Gaien artean: Nola mantendu kultura identitate desberdinak makro-egituren mundu honetan? Nola ekiditu ikuspegi nazional bateraezinak? Zein aukera eskeini ahal ditugu borrokaren idealizazioak kuestionatzeko? Nola bateratu kultura identitateak, kultura anitzetako gizarteekin eta nazioarteko dinamikekin? Nola ulertu gai guzi hauek herritar globalaren eta gizakion

PEACE
EDUCATION
CENTER
TEACHERS COLLEGE
COLUMBIA UNIVERSITY

baketik arantzazu

segurtasunaren perspektiban? Alderdi desberdinak elkarlanean biltzen dituen narratiba nazionalak sortzea ere garrantzitsua da.

Elkarrekiko Menpekotasuna

Europak erantzun, gogoeta eta ekimen ugari eman dituzten gatazken historia luzea du. Gatazkei emandako erantzun hauetatik sortu diren perspektibak bake kultura baterako hezkuntzari buruzko galdera asko sortzen dizkigu. Nola transmititu historia hau? Nola lan egin hezkuntzatik biktimen sufrimenduaren inguruan, presoen eta familien arazoaren inguruan gatazka armatuetan? Nola lagundu ahal du memoriak berradiskidetzean? Nola lotu gai hauek narrazio nazionalen sortze edo berformulatzearekin? Nola elikatu bakea banakakoan, maila lokalean, nazionalean eta globalean? Nola bultzatu erregioen arteko elkarlanak?

Bortxakeriarik gabeko Eraldaketatarako Hezkuntza

IPE-k esperientziarako gune interaktibo bat eskeintzen digu bake hezkuntzarako bide berritzaileak ikertzeko, komunitatean besteekin eta besteengandik ikastea oinarritua. Foro honetan, aukera paregabea izango dugu kultura anitzetako kontestuetan bake hezkuntzak nola funtzionatu ahal duen ikertzeko, eta gure kontestu eta kulturatako planteamendu pedagogiko, eredu arrakastatsu eta ezagutzen ditugun tradizioak trukatzeko.

Bortxakeriarik gabeko Eraldaketatarako Hezkuntza azpi-gaia-ren zentzua zera da: nola hezitu bidegabekeria, pobrezia, zapalketa, ingurugiroaren suntsiketa, manipulazioa, baxukeria morala, korrupzioa eta boterearen gehiegikeriei aurre egiteko?. Eraldaketarako bide anitzak eta erresistentziarako modu egokiak aztertu beharra daukagu. IPE-k “erresistentzia eraldatzailea”-ren kontzeptua ere ikertuko du. Nola erresistentziak izan ahal diren prebentiboak, konzientzi sortzaile eta ikasketarako prozesu eraldatzaileak. Azpi-gai hau ikertzean sorteen diren zenbait galdera: Zein lotura eskeini ahal ditugu elkarrengandiko ikasketarako, hezkuntza inguru formal eta ez-formaletan bortxakeriarik gabeko ekintza transformatiboen ikasketarako eta berradiskidetzarako hezkuntzarako? Zein pedagogi berri behar dugu premiazko gai hauek lantzeko? Zeintzuk dira komunikabideen, gizarte mugimenduen, administratzaile publikoen, gizarte erakundeen, artisten, zientzilarien, intelektualen eta agente ekonomikoen betebeharrak?

Hezkuntzaren Lehentasun Praktikoak Bakerako Transizioetan

IPE-ren azpi-gai berezi honek zerari erantzun nahi dio: nola gaurkotu, egokitu eta diseinatu bake hezkuntza munduan ematen ari diren bakerako transizioetan, Euskal-Herriari eta partaideen jatorrizko herrialdeei arreta berezia jarritz. . Bake Hezkuntza arlo holistiko eta bateratzailea denez, helburu haundiak ditu. “Gerra sistema”-ren eraldaketa adibidez, bake hezkuntzako eduki eta praktika gehienetan agertzen da. Hala ere, helburu hauek praktikatzaileak gainditzen ditu, hezitzaileen inguruetara aplikatzea erronka bat izanik. Nola hasi eta garatu bake hezkuntzarako proiektu praktiko bat gure komunitateetan? Nola erabaki eta ebaluatu gure komunitateen beharrak gure ekimenen helburuak finkatzean? Nola mantendu helburu haundiak gogoan tokian-tokiko ekintzak diseinatzean?